



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2022.10.25
Ordua: 18:00
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/09/21eko akta aho batez onartu da.

2. URRIAREN 15EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO
EGUNA 2022**

Urriak 15, landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da. "Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da edo ez da izanen" lelopean elkarrekin ospatuko dugu egun hau Berdintasun Teknikaria duten toki eta lurralde entitateek. Emakumeek, beren aniztasun osoan, Nafarroako

landa-eremuetako lurraldeen jasagarritasunean duten zeregina eta ekarpena aitortu nahi dugu. Era berean, arras modu aktiboan lagundu nahi dugu ingurune hori eboluzioaren, garapenaren eta aurrerapenaren adibide izaten jarrai dezan, bai ekonomiaren esparruan, bai gure herri eta landa-eremuetako gizarte eta kultura arloan.

Testuinguru zabal horretan, emakume guztiek funtsezko eginkizuna izan dute eta dute, eta, beraz, toki-erakundeek beren bizi-kalitatea hobetzeko lan egin behar dugu, zerbitzu publikoetara sartuz eta haien aldarrikapen eta beharrei erantzunez.

Horregatik, apustu sendoa egin nahi dugu, erronka garrantzitsuak ekarriko dituen. Erronka horiek landa-eremuan lan egiteko kontuan hartzeko estrategia izanen dira, gure lurraldeetan etorkizun oparoa, bidezkoa eta baketsua eraikitzeko funtsezkoak direlako: genero-berdintasuna landa-lurraldeetan zeharka sartzea, inguru horretako emakumeen eta nesken ahalduntzea, emakumeen parte-hartze soziopolitiko herritar aktibo eta boteretsuak izateko, lana eta bizitza pertsonala uztartzea, emakumeen elkartegintzari eta berdintasunaren alde lan egiten duen elkarteei laguntzea eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatzea.

Bereziki, uste dugu lehentasuna eman behar zaiela honako gai hauei:

- Emakume gazteak kontuan hartzea, hirietara joan ez daitezen garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako aukeren bila.
- Emakumeak norberaren eta besteren konturako lan-merkatuan sar daitezen sustatzea, landa-eremuan hirietan baino zailagoa baita.

Pentsamolde-aldaketa lortzea, emakumeen eta gizonen arteko rol-banaketaren barruan bereizkeria-egoerarik sor ez dadin eta landa-eremuko emakumeen egoera pertsonala eta lan-egoera hobetu dadin. Emakume horiek ikusezin bihurtu dira, eta baserriko lanez gain, "etxeke eta familiako zereginak" ere emakumeek egin beharreko lanen gisa ikusi izan da beti.

Azken finean, toki-erakundeek gure ahaleginak bateratzen ditugu landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Horretarako, emakumeen ahalduntzean aitzinera egin behar da, eta emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa areagotu behar dira bizitzako eremu guztietan. Landa-eremuko emakumeak agerian eta aintzat hartuak izatea da gure konpromisoa, eta, horregatik, bat egiten dugu emakumeen elkarteak egiten ari diren lanarekin eta haien aldarrikapenen alde egiten dugu.

Modu positiboan laguntzen jarraituko dugu, Nafarroako lurralde zabal eta askotarikoa osatzen duten herrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aitzinera egiteko, horrek ekarriko duen onuraz jabetuta.

3. ARANTZAKO BAKE EPAILE ORDEZKOAREN IZENDAPEN PROZEDURA ABIARAZTEA.

Idazkariak azaldu du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2022ko urriaren 4an jakinarazi duela sarri Isabel Damboriena Damboriena Bake Epaille ordezkoren izendapena iraungi eginen dela.

Horrela bada, Bake Epailen ekainaren 7ko 3/1995 Araudiko 5., 6. eta 7. artikuluetan xedaturikoa jarraiki, Bake Epaille Ordezkoaren izendapen prozedura abiarazi beharra dela jakitera eman du idazkariak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- Bake Epaille ordezkoa izendapen prozedura abiaraztea.
- 2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean Bake Epaille ordezkoaren izendapen prozeduraren hasiera argitaratzea, 15 egun balioduneko epea emanez parte hartze eskaerak aurkezteko.

4. LEHENTASUNEZKO BIRGAITZE EREMUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak Arantzan Lehentasunez Birgaitze Eremua arautzen duen ordenantzaren artikulua azaldu dituzte. Horri dagokionez, idazkariak jakinarazi du Arantzako Udalaren 2022ko irailaren 21eko osoko bilkura arruntean behin betiko onetsi zela Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehaketa Lehentasunezko Birgaitze Eremua hirigune historikoarekin mugatzeko. Horrela bada, behin betiko onespeneren iragarkia 2022ko urriaren 14ko 204. zk. duen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen.

Zentzu horretan, Nafarroako Gobernuak Lehentasunezko Birgaitze Eremua izendatu aitzinetik beharrezkoa da alde aitzinetik udalaren dirulaguntzak arautuko dituen ordenantza onartua izatea eta, gainera Birgaitze Bulegoaren aldeko txostena izan beharko du ere; hori guztia etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituena irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 54.2. artikuluan oinarritutakoari jarraiki.

Ordenantzari hasierako onespena emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325 artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela adierazi du idazkariak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

- 1.- Lehentasunezko Birgaitze Eremua arautzen duen ordenantzari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrak aurkeztu ezean, behin betikoa egite testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. GARBITZAILE LANPOSTU HUTSA MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU BEREZIAREN BARNEAN, ENRPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BETIKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.

Idazkariak adierazi du hain denbora laburra dela eta ez duela astirik izan deialdiaren oinarriak prestatzez bukatzeko. Hori dela eta, gaia egingen den hurrengo osoko bilkuran lantzeko proposatu du.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- Garbitzaile lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera, hurrengo osoko bilkuran lantzeko uztea.

6. 2021EKO KONTUEN ITXIERA ONESPENA.

Idazkariak adierazi du 2021eko kontuen likidazioa urriaren 10eko 124/2022 Alkate Ebazpen bidez onetsia izan zela. Era berean, 2021eko kontuen itxiera onesteko 2022ko urriaren 17ko data duen txostenean xedaturikoa azaldu du, bai eta likidazioa egiteko kontuan hartutako dokumentazio guztia ere.

Horri dagokionez, kontuen itxiera onesteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 2/1990 Foru Legeko 305 artikuluan xedaturikoari jarraiki egin beharra dela azaldu du idazkariak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- 2021eko kontuen itxierari hasierako onespena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, iragarki hau herriko taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

7. 2022KO AURREKONTU ALDAKETAK.

Idazkariak 2022. urtean egin beharreko aurrekontu aldaketak aipatu ditu. Horretarako aurrekontuen aldaketa egin ahal izateko 2022ko urriaren 24ko kontuhartzailearen txostenean xedaturikoa azaldu du. Horrela bada:

4/2022 ALDAKETA: KREDITU TRANSFERENTZIAK (GASTUEN ARLO EZBERDINEKO APLIKAZIOAK)

BASARTEA S.L. enpresak egindako txostenen gastua finantzatu ahal izateko kreditua lortzeko gastuen arlo ezberdineko aplikazion arteko kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 4121 2279904	BASARTEAKO TXOSTENAK	4.500,00 €

FINANTZAKETA:		
1 9200 1430008	ADMINISTRARI LAG. LANSARIA	4.500,00 €

Hasteko, 3.3. oinarrian xedaturikoari jarraiki, aurrekontu aplikazio guztiak berariaz irekita daudela adierazten denez, gastuen atalean 1 4121 2279904 "BASARTEAKO TXOSTENAK" partida ireki beharko da.

Ondoren, transferentzia gastu arlo ezberdineko aurrekontu aplikazioen artekoa denez, 11.2.c) oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, 9.4. oinarrian aurreikusitako tramite berei jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- 4/2022 aurrekontu aldaketari onespina ematea.

2.- Udaleko iragarki oholean akordioa argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa

5/2022 ALDAKETA: KREDITU TRANSFERENTZIAK (GASTUEN ARLO EZBERDINEKO APLIKAZIOAK)

Eskolako hornidura zerbitzuen gastuen igoera nabarmenari aurre egiteko kreditua lortu ahal izateko gastuen arlo ezberdineko aplikazioen arteko kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 3232 2210004	ESKOLAKO HORNIDURAK: ARGIA, KALEFAKZIOA	2.400,00 €
FINANTZAKETA:		
1 9200 1430008	ADMINISTRARI LAG. LANSARIA	2.400,00 €

Transferentzia gastu arlo ezberdineko aurrekontu aplikazioen artekoa denez, 11.2.c) oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, 9.4. oinarrian aurreikusitako tramite berei jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- 5/2022 aurrekontu aldaketari onespina ematea.

2.- Udaleko iragarki oholean akordioa argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa

6/2022 ALDAKETA: KREDITU TRANSFERENTZIAK (GASTUEN ARLO EZBERDINEKO APLIKAZIOAK)

Herriko argiteriaren gastuen igoera nabarmenari aurre egiteko kreditua lortzeko gastuen arlo ezberdineko aplikazion arteko kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 1650 2210002	HERRIKO ARGITERIAREN	4.800,00 €
FINANTZAKETA:		
1 9200 1430008	ADMINISTRARI LAG. LANSARIA	4.800,00 €

Ttransferentzia gastu arlo ezberdineko aurrekontu aplikazion artekoa denez, 11.2.c) oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, 9.4. oinarrian aurreikusitako tramite berei jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 6/2022 aurrekontu aldaketari onespena ematea.
- 2.- Udaleko iragarki oholean akordioa argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa

7/2022 ALDAKETA: DIRU-SARREREN KREDITUAK SORTZEA

Eskola margotzeko dirulaguntza jasoko denez eta gastuen atalean eskola margotzeko partidan kreditu nahikoa ez dagoela ikusirik, diru-sarreraren kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 3232 6320001	ESKOLA MARGOTZEA	30.000,00€
FINANTZAKETA:		
1 7508005	ESKOLAKO FATXADA MARGOTZE LAGUNTZA	30.000,00€

Diru-sarreraren kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa denez, 13 oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, akordioarekin aski izanik hau betearazlea izan dadin.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 7/2022 aurrekontu aldaketari onespena ematea.

8/2022 ALDAKETA: DIRU-SARREREN KREDITUAK SORTZEA

Egoitza elektronikoa berritzeko dirulaguntza jasoko denez eta gastuen atalean ez dagoenez egoitza elektronikoa berritzeko krediturik, diru-sarreraren kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa proposatu du idazkari-kontuhartzaileak.

GASTUA:		
1 9200 6410001	EGOITZA ELEKTRONIKO BERRIA	1.620,00 €
FINANTZAKETA:		
1 7508006	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKO DIRULAGUNTZA	1.620,00 €

Hasteko, 3.3. oinarrian xedaturikoari jarraiki, aurrekontu aplikazio guztiak berariaz irekita daudela adierazten denez, gastuen atalean 1 9200 6410001 "EGOITZA ELEKTRONIKO BERRIA" partida ireki beharko da.

Diru-sarreraren kredituak sortzeko aurrekontu aldaketa denez, 13 oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, akordioarekin aski izanik hau betearazlea izan dadin.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- 8/2022 aurrekontu aldaketari onespena ematea.

8. ALKATEAREN EBAZPENAK.


114/2022 eta 133/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:40 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

